

150 IKASTARO BAINO GEHIAGO GIPUZKOAKO ENPRESEN LEHIAKORTASUNA SUSTATZEKO

Donostia - 2016ko Urtarrilaren 29a

Gipuzkoako Bazkondeak 150 ikastaro baino gehiago antolatu ditu lehenengo seihileko honetarako, Gipuzkoako profesionalak eta zuzendariak trebatzeko, eta bide batez Gipuzkoako enpresen lehiakortasuna sustatzeko.

Aurkeztutako prestakuntza enpresen arlo eta departamendu ezberdinetara bideratuta dago. Prestakuntza eskaintza ugaria da, mintegiak, tailerrak, ikastaroak eta Graudondoko programak, horrela, Administrazio kontseiluei eta Errektore Kontseiluei zuzendutako tailerretatik hasi eta hizkuntzen ikastaroetaraino zabaltzen da aukera, tartean beste hainbat ikastaro nabarmentzen direlarik, hala nola: familia enpresei laguntzeko programak, erdi mailako agintariak taldeak zuzentzeko trebatzen dituen ikastaroa, nazioarteko merkataritza tailerrak, arlo komertzialari eta marketinari bideratutako ikastaroak, fiskalitateari zuzendutakoak, eta azkenik, master eta graduondokoak, ezagutza eta tresna diferenteak eskaintzen dituen prestakutza zuzendarien eta profesionalen gaitasunak sustatu ahal izateko.

Estreinatu berri dugun urte honetan, parte hartzea iazkoaren antzekoa izatea espero da, kontutan izan da 2015ean 260 ikastaro baino gehiago antolatu zirela, 7.000 ordu iraupenekoak eta 2.600 pertsonen parte hartu zutela.

[Esteka honetan](#) sakatuz gero lehenengo seihileko honetarako antolatu diren ikastaroen informazio zehatza jasotzeko aukera izango duzu.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347